

**“ESKUALDUNA” ASTEKARIAREN  
MENDEURRENA  
(1887-1987)**

*Baiona, 1987-III-29*



## “ESKUALDUNA” ASTEKARIAREN MENDEBURUAN

*Baiona-n, 1987ko Martxoak 29*

*Fr. L. Villasante*

### **Euskaltzainburuaren agurra**

Jaun-Andreak, egun on guztioi!

Euskaltzaindiaren ohitura da euskararekin zer-ikus duten iraganeko gertakariak gogoratzea eta hortik hizkuntzaren gerorako ikas daitezkeen letzione eta erakaspenak hartzea. Eta hori da, hain zuzen, egungo kasua. Ehun urte dira *Eskualduna* astekaria hemen Baionan irteten hasi zela. Astekari horrek bere urtume den *Herria*-rekin batean, ehun urteko adina jo du. Ez da egunoro gertatzen den gauza, eta merezi zuen ospatzea.

*Eskualduna* euskal kazetaritzaren aitzindaria dela hertsiki ezin esan daiteke, zeren *Le Réveil Basque* urtebete lehenago agertu baitzen, baina honek ez zuen iraun, besteak, aldiz, bizitze luzea izan du, eta kazetari ospetsuen lantegi bilakatu zen. Guztion gogoan dira Hiriart-Urruty, Abbadie, Arnaud, Etxepare eta beste ainitzen izenak.

Hortik hizkuntzari gertatu zaizkion irabaziak nik hemen konta ditzakedan baino handiagoak izan dira, zalantza gabe. Bai. Urrats handia izan zen hura. Behar zen plegu berrietara egokitu hizkuntza, eta idazle-mordoa jarri zen lanean. Beste gauza askotan bezala, honetan ere Iparraldea aitzindu zaio Hegoaldeari.

Ospaketa hauek ez dute izan behar iragana oroit arazteko soil-soilik. Jaun haiek beren garaia erantzuteko egin zutena gogoratzearekin batean, guk geureari erantzuteko zer behar dugun egin gogoeta egiteko parada dira. Kazetaritzak bere garrantzia atxikitzen du orain ere, baina badira teknika berriak eta komunikagailu berriak, agian euskararentzat ahalez baliatu beharko direnak.

Segidan mintzatuko diren jaunak gertakari honen alderdi edo saihets desberdinak harrotuko dizkigute, bai iragana eta bai etorkizuna ere gogoan hartuz. Dena motx eta labur, ordea.



## ESKUALDUNA-ren mendeurrena BAIONAN

1887-III-15 - 1987-III-29

*Piarres Xarritton*

1887ko martxoaren 15ean, orai duela ehun urte, argitaratu zen Baionan, *Eskualduna* izenarekin, lehen astekari euskalduna.

Gertakari horrek gaitu elgarretaratzen hemen, Baionako euskal erakustoki honetan, mendeurrenkari, Euskaltzaindia-ren itzalean.

*Eskualduna*-ren sortzailea eta jabea, Louis Etcheverry (1853-1907) politikari euskalduna izan zen. Politikaz egin ote zuen hori jaun horrek? Politikari guziek alabaina beren ideietara bildu nahi izan dituzte, egundainotik, beren herritarrak. Eta hain zuzen Louis Etcheverry-k bazekien, bere kontrako beharra zuen Martial Berdoly deputatu gei gorriak, 1886ez geroz (1), Paben argitaratzen hasia zuela *Le Réveil Basque*, astekari erdi-euskalduna.

Ala aments euskara maitez zuen *Eskualduna* sortu deputatu gei xuriak? Xuxen ez genekike. Zenbatetaraino berak euskara menderatzen zuen ere ez baitakigu. Baigorri Etxeberrineko familia ezagunetik ateraia izanik ere eta haurretik Donazarreko Sala jauregian hazia, bera Baionan sortua zen, Parisen eskolatua eta ez zirén euskaldunak ez haren ama ez haren emaztea. Dena dela, bere ikerlanetan erakutsi zuen Euskal Herriari atxikia zela, lan ederrak argitaratu baitzituen, bai “euskaldunen ondoriotasun ohidurez”, bai ordu haietan “euskaldunak Ameriketara saldoka zeramatzan mugimenduaz” (2). Bainan politikan ere ez da dudarik, bere odoleko Baigorriar asko bezala, Napoleon-en miresle handietarik zela eta beti Bonapartista izan dela.

Bildu zituen lagunak ere ideia berekoak zitezkeen, hots “xuriak” edo “xurituak” —“xuriak” izaitzez erregetiarrak baitziren, bonapartistak aldiz Napoleonek ixuri odolarekin nahi-t-ez “gorri” izanik, geroxeago “xuri-

---

(1) *Le Réveil Basque*, Pau Garet, 1886-1894.

(2) “Les coutumes successorales du Pays Basque au XIXe siècle”, Ligugé, 1894. “Les Basques et leur émigration en Amérique”, Réforme Sociale, 1886.

tuak"—; erran nahi dugu beraz apez eta fraile andana bat: Innocentius eta Juvénał-Martyr, Hazparneko ikastetxeko bi "frerak", Jaret Hazparneko misionesta, Ithurry gramatikalaria eta *Napoleon-en pastoralaren* idazlea, Bidart-Oxkax pertsularia eta Uztaritzeko Etcheberri, *Almanaka*-ren sortzailea, eta bestalde, Duvoisin kapitain famatuaren ondotik, jaun parrasta bat: Minjonnet eta Mendiboure Baigorrikoak, d'Etchandy ziberotarra, Ritou Hazparneko notaria eta oroz gainetik Albert Goyeneche medikua, Donibaneko auzapeza. Azken hunek zuen, hain zuzen, bere karrosa zainaren semea aurkitu, Arnaud Pochelou Aihertarra, euskal astekaria hemezortzi urtez kudeatu behar zuena (1887-1905).

Horrela bildu zen beraz kazeta tipiaren hastapeneko taldea. Kazeta tipia aipatu dugu, zeren irakurle kopuru tipia baitzuen lehenbizian: 850 ale baizik ez zeuzkan alabainan 1888an, 950 1889an, 1200 1890an, 1300 1891an; oraiko kazetari gazte zenbait lotsatzen baitira guti saltzen dutela, ez bitez izi!, horrela abiatu zen ere gure *Eskualduna*, arras tipitik (3).

Bainan laster etorri ziren izigarriko ximixta eta ortzi karraskak: lau urteren buruko, apezpikutegian eta diosezia guzian ustegabeko gertakariak gertatu zirelarik.

\* \* \*

*Eskualduna*-ren buruzagia deputatu iragaiten zelarik, Louis Etcheverry bera, hona nun Marsellatik Baionara heldu den, 1890eko martxoan apezpiku berri bat, Mgr Jauffret izena duena. Honek fama txarra du —zenbaitek framazona dela ere diote— Gobernuaren eskumakil umil, hasteko, berehala agertzen da; etorri orduko Emmanuel Inchauspe bikario jeneralaren kargu uztea onartzen baitu eta berak hamar erretor euskaldun lekuz aldatzen baititu, botzetan beren burua soberaxe agertu dutelakoan. Hamarretarik zazpiek ordea, apezpikuaren kontra auzia Erromara eremaiten dute eta, han dagoen Baionako "monsignor Pujol" delako bati esker, irabazten.

Erromako auziaz zenbait piko atera zituen *Eskualduna* astekariak, 1891eko urtarrilaren 9an, eta hori gaitzitu apezpikuari, bai eta berak jakinerazi buruzagiari, eliza guzietan kondenatzen zuela haren kazeta, ez bazituen berehala gezurtatzen bere aintzineko solasak.

Amore eman zuen aldi honetan Louis Etcheverry-k, bainan handik aste guti barne, lankide berri bat aurkitzen zuen Larresoroko Semenarioan berean, Jean Hiriart-Urruty, hango irakasle gaztea, Hazparne Joanesederraeneko apezka (1859-1915). Hats berri ta luzea eman beharra zion, mende laurden batez, astekari euskaldunari, apez gazte horrek, berak

---

(3) P. LAFFITE, in J. Hiriart-Urruty, "Mintzaira, aurpegia, gizon!", *Jakin-2*, 1971, "Eskualduna", 23-42. orr.

eremanen zuen lan izigarriaz bestalde, lankide paregabeak bildu baitzitu-  
tuen euskal alor berri horretara, hala nola eta lehenik Arnaud Abbadie  
Larresoroko buruzagia eta filosofia irakaslea, luzaz eta luzaz Laborantza  
gaiez ariko dena; Blaise Adéma, Adéma-Zalduby xaharraren iloba;  
Dominique Mocoçain Baigorriko bikaria; Julien Heguy Aihertarra; gero-  
xeago Pierre Broussain herritarra (4); eta bere ikasle ohi zenbait ere, Jean  
Etchepare medikua, Jean Saint-Pierre, Jean Elissalde eta Jules Moulier.  
Nola ez aipa azkenik Jean Barbier garaztarra eta, “Joanes Garaztarra”  
sinatua gatik, Santa Garazia-ko seme zen Jean Baptiste Constantin errien-  
ta eta honen ziberotar lagundia?

\* \* \*

Ondoko urtean ordea, 1892an, berriz sortzen dira eztabaidak kazeta-  
ren inguruan. Ez ote da Aita Saindua, Leon XIII.a Frantziako Errepubli-  
karen alde agertzen? Lehenago ere Lavigerie Baiones kardinala horrela-  
tsu mintzatua zen, Erromatik hitzerdi errana baitzioketen eta gaizki hartua  
izana zen (5). Bainan oraikoa, Aita Saindua bera mintzo izanez (6),  
Larresoroko apezek “amen” erran behar zuten. Apez horiek ikasi dute  
alabaina Larresoroko lehen irakaspena, hots “patria”rik ez dagoela, eta  
apezen “patria” bakarra “eliza” dela. “Patria”ren izenean elizak eskatuari  
behar zaio beraz beti jarraiki. Horra zergatik Larresoroko apezek “amen”  
erraiten dioten Aita Sainduari eta Errepublikari (7).

Louis Etcheverry aldiz Bonapartista baitzen, eta ez apeza, nekez  
umiliatu zen. Orduz geroz, halako hinki-hanka batean gertatu ziren  
*Eskualduna*-ren buruzagia eta bere lankideak. Ez halere horrengatik orai-  
nokoan elgarretarik bereizi.

1901ean frantses gobernuak lege berri bat eskaintzen dio elizari, *Loi  
des Associations* izenekoa. Lege horrek sortzen baititu eztabaidak apezpi-  
kuen beren artean. Baionako apezpikuak ere bere ikuspegia gai horretaz  
agertu zuen. Aita Saindua aldiz orainokoan ixilik. Bainan Etcheverry-k  
bere astekarian Baionako apezpikuaren kontra ohar bat edo beste bota

---

(4) P. CHARRITTON, “P. Broussain, sa contribution aux études basques”, Paris CNRS, 1985, passim.

(5) “Toast d’Alger”, 1890.

(6) “Au milieu des sollicitudes” entziklikoa, 1892.

(7) Larresoroko semenarioan 1834ean, Claverie hango buruzagiari egin zion ikustaldi batez honela dio, hango ikasle eta irakasleez orduko ikusliar batek: “Il faut à leurs yeux que l’armée des fidèles se renforce comme celle qui doit défendre le sol chéri... Pour le prêtre il n’est point de patrie. Le sienne véritable est celle où la croix qu’il élève voit tomber les peuples à ses pieds.” J. L. LACOUR, “Une visite à Larressore en 1834”, *Gure Herria*, 1926, 509. orr.

baitzuen eta apezpikutegitik botaren errefera etorri baitzen, *Eskualduna*-ren buruzagiak bere buruzagitza uztea honetan erabaki zuen.

Louis Etcheverry 1901 ean, bera baino eskuinago den baten eskuetan, Edouard Drumont famatuaren adiskide den Renaud d'Elissagaray-en eskuetan, ezartzen du horrela astekari euskalduna. Hiru urte iraun zuen buruzagitza horrek. Aitor dezagun hiru urte horietan ez zela hanbat ontsa heltzen, Manex Hiriart-Urruty idazle nagusia, d'Elissagaray zuzendariarekin. Jaun hau bera ohartu zen bestalde ez zukeela Euskal Herrian aterabiderik bere politikarentzat, Bordale alderat urrundu zen eta "Médoc" aldeko deputatu sartu.

\* \* \*

D'Elissagaray-en orde *Eskualduna*-ren adiskidek Nicolas d'Arcangues, Milafrangako politikari erregetiarra, hautatu zuten 1903ko azken astetan. Aldaira honen aitzakiaz baliatu zen orduan Louis Etcheverry, *Eskualduna*-ren izenaz berriz jabetzeko, eta 1904eko urtarrilarean izen berri batekin agertu zen honela *Eskualdun Ona* (8).

Harrigarriko gorakada egin zuen gure kazetak, jauntzi berritan, bizpalau urtez. Ikus bada: 1700 hartzale zituelarik 1904eko hastapenean, 5000etara igan zen 1905ean, eta 7000etara hiru urte barne.

Bainan oroitu behar dugu nolako gertakariak orduan gure Herrian gertatu ziren: 1903an, prefetak debekatu zien Euskal Herriko apez guziei, katixima euskaraz emaita, beren hilabete saria galtzeko mehatxupean. Hiru hilabetetarik erretorek prefetari behar zioten bidali beren auzapezaren ageria katixima frantsesez emaiten zutela frogatzeko —eta ez euskaraz—. Asmatzeko da zer nahasketak sortu zituen bazterretan ordena itsusi horrek, bereziki Mgr Jauffret hilik, Baiona apezpikurik gabe zegoen momentu hartan.

Horren ondotik etorri ziren "Imitorioak", *les Inventaires*: Gobernuak elizaren ontasun guzien kondua egin nahi izan zuen, haietaz jabetzeko. Horrela prezeturak sartu ziren, polizaren eta harmadaren laguntzarekin, elizetan, semenarioetan, komentuetan, apezpikutegietan, eta hemen frantses gobernuak ebatsi zituen Baionako eta Larresoroko semenarioak bai eta Baionako apezpikutegia ere, besteak beste.

Ez da dudarik horrelako gatasketan izpirituak berotu zirela. Ez da beraz harritzeko Manex Hiriart-Urruty-ren orduko artikuluek gogor kutsu bat eta bortitz aire bat balin badute; hala nola Jules Ferry hil zelarik, euskaldun kazetariak titulu harrigarri hau bota baitzion: "Bat gutiago!".

---

(8) *Eskualdun Ona* izen horrek iraunen du Louis Etcheverry hil arte. Gero alargunaren baimenarekin, 1908ko urtarrilean Manex Hiriart-Urruty-k hartuko du berriz *Eskualduna* izen xaharra.



Ber denboran ordea, beste eztabaida bat sortu zen Hiriart-Urruty-ren eta bere lankide talde baten artean, hots Larresoroko apezan eta laiko talde baten artean. Azken hauek, Broussain eta Constantin bi medikuak, Clément d'Andurain haien adiskidea, harremanetan ziren Hegoaldeko abertzaleekin; Iparraldean nahiko ziren Sabino Arana Goiri-ren bidetik abiatu; berek zioten, "euskaldun alderdia" behar zela sortu eta beraz euskal astekaria baliatu. Baina honetan Larresoroko apezak kontra jarri zaizkien. Hauentzat alabainan erran bezala, "patria" bakarra eliza da. "Fedea" da bakarrik zaindu behar dena; Hiriart-Urruty-ren ustetan "Euskaldun" dira bai, baina ez zaie iduritzen "euskaldungoak" baduela, berez, zaintze beharrik. Horra zertan elgarretarik urruntzen diren bi taldeak.

Berantxeago oraino, 1911 irian, Hegoaldeko abertzale eta euskaltzale batzuen kontra agertuko ditu Hiriart-Urruty-k artikulu bat edo beste, zinez, "min emanen diotenak" Piarres Broussain Hazparneko auzapezari ta honen lagunei (9). Gehiago oraino, urrundo dira elgarretarik bi hazpandarrak, apezak azkenean, ikusiko duenean "elizaz" beste "patria"rik behar duela gizonak, Frantzia hartuko baitu "patria bakar". "Batasun Sakratua"ren izenean —"l'Union Sacrée" famatu hura gogoan har— 1914eko gerlan sartuko da, lorios, *Eskualduna*, oihu eginez: "Biba Frantzia!".

Bide horretatik joanen da orai beti —eta hil arte— gure kazeta euskalduna. Bakarrik Frantziaren amodio itsu horrek eremanen du azkenean Euskal Herriaren ahanztera eta berdin Frantziaren etsaiekin bat jartzera. Ez berehalakoan, baina urrats-ka, historiari jarraikiz.

\* \* \*

Manex Hiriart-Urruty ezen laster hilen da, 1915ean. Piarres Broussain ere bai, 1920an. Hiriart-Urruty-ren ondotik Blaise Adémak hartzen du kazeta, Jules Moulier-Oxobi, Hiriburuko bikariak emaiten dion laguntzarekin eta bizpalau adixkidek, Jean Saint-Pierre, Jean Elissalde eta Jean Etchepare-k, gerlatokietarik, igortzen dituzten berriekin.

Gerla bururatzearekin, gerlari ohiak gerlatik itzuli zirenak urrundu ziren gehienak Adéma-ren ganik eta *Eskualduna*-tik. 1921an sortu zuten horrela beren artean *Gure Herria* izeneko hilabetekaria (10). Aldizkari berri honek nahi-t-ez eremua xuhurtu zion *Eskualduna* xaharrari eta

---

(9) P. CHARRITTON, "R. M. Azkue eta P. Broussain-en elkarridazketa", *Iker-4*, Bilbo, Euskaltzaindia, 1987, 295. orr.

(10) *Gure Herria*, 1921-1939, Baionan.

1925ean, azkenekotz Adémak utzi zion Saint-Pierre gazteari astekari euskaldunaren zuzendaritza.

Buruzagi berriak hats berri bat ekartzeko xedea zuela dudarik ez da. Elissalde eta Moulier bere lagunak bezala, Saint-Pierre ari izana zen, Bilbo-ko *Euzkadi* egunkarian, Iparraldeko berrien emaiten, abertzaletasuna zer zen bazekiten gizon horiek eta haren alde agertzeko ere ez ziren lotsa —auzoan bederen— Mendiz honaindian hargatik hor zuten Jean Ybarnegaray-en itzal beldurgarria eta hau zein urrun zegoen abertzaletasunetik ez baita erraite beharrik, konprenitzeko da nola, urte horietan, *Eskualduna*-ren lankideek, euskaldunen ohorea zaindu nahiagatik —ikus Saint-Pierre-n: “La Bascouraille” artikulua— ahal bezala uztartzen dituzten Aberri Nagusia eta Aberri Tipia, “la Grande Patrie” eta “la Petite Patrie”. (“*Les meilleures pages de Mgr Saint Pierre*”, ed. Herria Bayonne, 1954).

Bost urteren buruko apezpikutu zen Jean Saint-Pierre eta *Eskualduna*-ren zuzendari sartu Domingo Soubelet hazpandarra, apezpikutegiko idazkaria. Buruzagi berriak iraunen du zazpi-zortzi urte, izigarriko lana eginez, zainetarik eritu arte; orduan, hots 1937an, Azkaratera erretor joan arte. Indar betean da astekari euskalduna; *Gazten Almanaka* eta *Gazten xokoa* ere agertzen dira. Bainan beti filosofia berdinarekin, hau da *Eliza*, *Familia* eta *Mintzaira*. Euskal Herririk ez balitz bezala. Eta hutsune hori behar baitu zerbaitek bete, hor duzu Frantzia sakratua, gerlari ohien Frantzia. Horra *Eskualduna*-ren politika, frantsesa baino frantsesagoa. Bide horretatik urrunago joanen da, ahal bada, Soubelet-en ondotik sartzen den buruzagi berria, Xalbat Arotçarena, Isturiztarra, Landibarreko erretor izana.

1937ko apirilean, Gernika erretzen duten egunetan, hartzen du, hain zuzen, bere kargua zuzendari berriak; ohargarri da nola euskara hoin ederki zekien kazetari euskaldunak bere astekarian aipatu zuen Gernikaren erreketari, orain duela berrogoi-ta-hamar urte:

“Euskaldun guziek maite dute Gernika eta Gernikako Arbola: guziek bihozminekin jakin dute makur gaitzak egin dituela hor gerlak. Mola-ren soldadoek hartu aintzin, Bilbo-ko berriek zioten aleman airoplanek izigarriki tirokatu dutela. Xuriek aldiz ezetz; gezurra diotela; hori gorrien beren lana dela, Irunen bezala, Eibar-en bezala, orotan bezala. Bainan han ziren jendeak salatzen daukute eta Agirre Euzkadiko buruzagiak jakinerazi dauku, hiru orenez iraganik aleman airoplanek, aldizkatuz, beren bonbak aurtiki dituztela, hiriaren gainera. Merkatu eguna hain xuxen, zenbat jende ez da garbitu hor! Ni nago alemanek beti obeditzen ote dutenez Franco-ren manuei eta ez dutenez, beti bezala, uzten tzarkeria nausi, bere gain! Gernika-ko Arbola ez omen dute haatik hunki. Mola-ren soldado euskaldunek zaintzen dute Arbola saildua. Geroztik

izan diren kazeta-egile frantsesek diote gorriek berek dutela eman sua, Irun-en egin zuten bezala (11)".

Horra beraz nola emaiten zituen berriak orduko kazeta euskaldunak. Eta ez hori bakarrik, baina zuzendariak berak, aste oroz, jaukitzen zituen gogor euskal abertzaleak eta hauek hemen argitaratua zuten *Euzko-Deia* (12) deitu kazeta. Ez zen ordea luze joan eztabaida hori, zeren bestaldean baratu orduko, hemen berean piztu baitzen gerla.

Frantses harmada errautsirik eta frantses soldadoak ihizatzen zituztela, erbiak bezala, aleman tropak ikusi genituen 1940ko udan Baionaraino heltzen. Gure herritar gehienak harrituak, zein "plantakoak" —*corrects* frantsesez— ziren, delako Hitler-en soldado horiek. Hain plantakoak iduritu zitzaizkon gure Arotçarena-ri, non erabaki baitzuen behar zituela bere astekarian sustengatu, Rusiako komunista gorrien kontra. Eta hortarik ari izan zen "gorri-gorria" —erran badezakegu— gure idazle euskaldun frantses eta xuria. Hainbestetaraino, non Hitler-ek mintzaldi bat egiten zuelarik, Arotçarenak euskaldunentzat itzulpena egiten baitzuen, zenbaki berezia argitaratuz.

Gero ordea, gerla galdurik, alemanak ihesi joan zirenean, *Eskualduna* hetsi behar izan zen eta zuzendaria bera itzalera joan, gogoeten egitera. Auzitegian iragan ondoan eta gaztigu garratzegirik gabe, Baionara itzuli zelarik, Xalbat Arotçarena, gramatika lanetan eta apezpikutegiko artxiboetan ere ezagutu genuen. Hil aintzin, katedraleko kalonje eta Euskaltzaindiko urgazle izendatu zuten bestalde.

Azkenekotz, hemen lasterka aipatu ditugun kazetarien obrak norbaitek hurbildik ikertu nahi baditu, jakin dezala hauxe bederen:

Manex Hiriart-Urruty-ren artikuluetarik, Piarres Lafittek bildu zuen, loretegi bezala, *Jakin* argitaldaria argitaratu zituen hiru liburuen gaia. Aitor dugu halere zenbait artikulua interesgarri falta direla, hala nola Azkue-ren kontrakoak, 1911koak (13).

Jean Etchepare-n idazkietarik nihaurek bi libururen haina badut argitaraturik eta beste biena bideratua daukat (14).

Hor daude ordea biltzeko, eta argitaratzeko, Abbadie eta Adéma eta Constantin eta Saint-Pierre eta Soubelet eta Arotçarena batzuen idazkiak

(11) *Eskualduna*, 30-IV-1937.

(12) *Euzko-Deya*, Paris, 1936-1940.

(13) J. HIRIART-URRUTY, "P. Lafittek bildu antologia", *Jakin Historia-2 & 4*, Oinati, 1971-1972.

(14) P. CHARRITTON, *J. Etchepare mirikuaren idazlanak, I & II*, Elkar, 1984-1985.

—azken honenak bahituak izan badira ere—. Lan interesgarriak bai literaturaren aldetik bai soziologiaren aldetik, bai teologiaren aldetik, jakiteko bederen zein izan diren gure Herriari eskaini zaion teologiaren hutsuneak eta, ordu bada, hutsune horien betetzeko. Goiz honetan entzunak entzun- eta hutsune zenbaiten betetzeko gogoia badela oraino lekutan baitirudi (15).

Hea badenetz langilerik!

---

(15) Ikus egun berean, Baionako San Andres elizan, Pierre Molères, Baionako apezpi-kuak eman hitzaldia (*Herria*, 1987-IV-9).

## KAZETARI EUSKALDUN BATEN KRONIKA

*Baiona, 1987-III-29*

*Martin Ugalde*

Kazetaritzarako joera noiz sumatu nuen badakit: Andoaingo Ekintza Katolikoak La Salle-tarren eskola ondoan zuen biblioteka txiki hartan. Han aurkitu bait nuen Salgari-ren korsari saila.

Hau ez nuen nik literatura bezala irakurri, kazetaritza gisa baizik: han agertzen zirenak ez ziren asmatuak, gertatuak baizik. Eta txunditurik utzi ninduen, egileak irakurlea beste mundu batetara eramateko zuen dohain miragarri hark.

Neronek biziko nituzkeen pozik Salgarik bizi izan zituenak!

Erdarazkoak ziren liburuak, noski; neure hamabi urterekin, normala iruditu zitzaidan horretarako erdara behar izatea. Nire aita andoaindarrak, euskaldun hutsa bazen ere eta erdaraz irakurtzea asko kostatzen, egunkari erdaldunak irakurtzen zituen; euskararen aldekoak, noski, baina erdaraz eginak! Nire ama ernaniarrak, berriz, euskaldun kategoria berekoa izanik ere, bazuen erdarazko folletinak irakurtzeko gustu berezia, orduan atezate eta kapituluka zabaltzen zituztenak, denak negarti-mindulinak: *Gorriones sin nido* eta *Doña Genoveva de Brabante*, esate baterako.

Nire ama malkotan ikusi dut horiek irakurtzen.

Orain berrogeita hamar hirurogei urte bitartekoaz ari naiz, noski; Errepublika garaian; jendea egunkarietan euskaraz zerbait idazten hasi zenean.

Neuk aitona sentitu nuen bertsolari, Andoainen bertan: bere bertso paper batzu irakurri nituen; gero, osaba Joxemanuel-ek feriz-feri abesten eta saltzen zituenen artean, bazen aitonarenik. Bi hitzetan esateko: inprimatutako hitzetan, bertsolariak eta Jaungoikoak zuten euskal hitza: dotrina euskaraz ikasi genuen gauza bakarra izan baitzen, eta gero don Joakin Bermejo eta don Juan Arangurenen eskutik elizkizun eta euskal jai guztiak bizitzen baigenituen; eta, hala, Jaungoikoa eta bertsolaritza, biak ziren sakratuak niretzat, eta *euskarak sakratuak*.

Gainontzeko paper eta liburuen mundua, dena erdara zen.

Bestalde, jerarkia hau, gaur diglosia bezala ezagutzen dugun egoera hau, osorik normala iruditzen zitzaidan, ezinbestekoa.

Telefonorik ez genuen etxean, baina Ernanira senidetartekoren bati hitzegin behar zitzaionean, Itxuaneko Telefonikara joan eta han erdaraz irteten zitzaizkion nire amari hitzak; nire burutik orduan pasia da hau: erdara sartu eta euskara irteteko aparatoa zela, euskarak alanbretatik zuen pasa ezinen bat ere sumatzen nion nik. Irrati aparataturik gutxi zegoen herrian, dozenatxoren bat; eta hemen ere fenomeno bera: nire aitarekin Aste Santuko “Zazpi hitzak” entzutera Elorriaga lagunaren etxera joaten ginenean, erdara hutsean irteten ziren gurutzeko Kristoren hitzak, antsi eta guzti!

Bizi-bizi gorde ditut dartada hauek.

Eta gerra lehertu zen.

Astebetekoa zena, hiru urte iraun eta gainezka erori zitzaigun. Mundugerra amaitzeko zegoela aurkitu nintzen Afrikatik bueltan Andoainen amarekin, eta bi urteren ahalegin eta guretzako eskupeko garesti zena direla medio, noizpait aita eta anaiarekin bildu ginen biok Caracasen. Heldu bezain laster konturatu nintzen han neuk ezagutzen nuen gaztele-  
ra aurkitzearen abantaila. Eta beste alde bat izan nuen han handia: nahi nituenak esateko bidea libre zegoen (eta hemen profesionaltasunaren beharra) tajuz eta interesgarri zen moduan, Salgariren antzeko, esatera saiatzan banintzen.

Askatasuna, edozein hizkuntzetan, ederra dela sumatu nuen!

Eta non, eta han izan nuen euskaraz idazten hasteko egokiera!

Caracas-en bizi zen euskara apurra Eusko-Etxera hurbiltzen zen; pitina zen, baina hemen hitzegiten zen, eta berauek ziren euskararen irakurle potentzial bakarra. Andoaindik eramateko gai izan nintzen euskara apala, estimatu egin zuten. Gazteak bildu eta “Gestetner” kopiagailu zahar baten bidez hasi ginen hileroko bat egiten: *Eusko-Gaztedi*. Neuk egiten nituen editorial elebidunak, eta sortu nuen “Erritar” nire izenordea euskarazko artikuluak izenpetzeko. Zergatik ez nuen hasera hartan nire izenez sinatu? Ez dakit ziur. Nire lantxoan ortografia pobreaken asmoa egongo zen gertuen, seguraski. Nik ezagutzen nuen gramatika apurrarekin jarri ninduten, hala ere, euskal klase batzu ematen. Ezin nuen atzera egin, bertako euskara apurra zegoen jokoan. Honetarako, A-BI, Andoni Arozena laguna, izan nuen maisu eta laguntzaile. Oñati-  
biak, Jonek, *Argia*-ren lehen alea han egin eta New Yorkera joan zen bigarrena egitera. Andima Ibinagabeitia ez zen oraindik etorri. Eta, hala, aldizkari batean (*Elite* izeneko astekarian) erdaraz idatziaz jateko irabazi

eta Eusko-Etxean euskara landuaz hasi nintzen nire elebitasuna pixka bat orekatzen.

Hara zer indiano egiten hasi nintzen!

Urteak joan zitzaizkidan, hogeita hiru, lan honetan; bitartean, atzerri-ratutako gure munduan ezagutu nuen santurtzear batekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan genituen; noizbehinka *Zeruko Argiarako* lanak, *Eusko-Gaztedi* aldizkarirako eta asteroko Eusko-Irrati-rako idazten nituenez gain, idatzi nituen euskarazko liburuxka batzu ere: bat, galdu genuen gerrak eta gerrondoak eraginda (*Iltzalleak*); bestea, gure haur euskaldunak bul-tzatakako ipuinak (*Umeentzako kontuak*) eta bi antzerkitxo (*Ama gaxo dago*, *Gurpegin aspaldi gertatua*), eta *Panpin* liburuxka bat.

Eta hor nator; nire gogoz eta nire familiaren gurutzebiderako, Eus-kalerrira bueltan; sartu nintzen ixilpeko lanetan, 1947az gero Caracas-en bazkide nintzen *Eusko Alderdi Jeltzalea*/PNV-ren alorrean.

Hemengo euskal lanak niretzat izan ziren; ez honetan ona edo jakintsua nintzelako, baizik eta lan hau egiteko kondizio haietan beste inor ez zegoelako.

Bidez, *Zeruko Argia*-n idazten jarri nintzen, eta hemen aurkitu nion euskarari inoiz pentsatu ez nuen bezalako branka-gila zorrotza: bi euskal alderdi bereizten zituen eta kontrajartzen zituen *H* sakratua. Lehengo buruhaustea nahiko ez zituela, euskara kinka larri honetan aurkitu zen. Eta gu bitarteko, noski. Ni, heldu berria eta mundu honetan eskarmentu gabekoa, hasi nintzen gauzak idatziz argitu nahiean, batekoei eta beste-koei elkarrizketa luze batzu eginaz, baina kaskarreko eta iraina franko jaso ondoren, pentsatzen hasi nintzen *h* berekin zuen erdara hutsean jarraituko ote nuen; hor zegoen aspaldiko gure batasuna egina! Hala ere, nire euskal kontzientziak instituzioaren bidea hartzera eragin ninduen, eta aurrera jarraitu nion, *Zeruko Argia*-ren bitartez, Euskaltzaindiari.

Eta ez dut damurik.

Baina nire kasuan, agerikoa nahiko ez zela, ixilpekoan ere sortu zitzaidan arazoa, eta hau, barrukoa, izan zen zailena.

Eta hemen hiru aldiz Juan Ajuriagerraren laguntza izan nuen:

1. *Alderdi* aldizkaria nire eskuetan jarri zuten; ixilpekoa zenez gero, behar nituen euskal idazleak ilunpean aurkitu; entzungor asko aurkitu nuen nire bidean. Batzu, beldurrez, eta beste batzu, *h*-rik gabeko lanik egin nahi ez zutelako, arrazoi handiz. Neroni aritzen nintzen, editorialez kanpoko beste euskal lanak ere idazten, izenorde ezberdinez. Baina ezin nintzen denetara iritxi; bestalde, ez nuen joko hau onartzen, eta Bilbon izan genuen batzar batean erabaki zen, azkenik: “Zeuk —esan zidan

Ajuriagerrak— artikuluak jaso bezala onartu behar dituzu, *h-gaz* badatoz, *h-gaz* agertu”. Eta “Orixe”rekin *Euzkadi* egunkarian Errepublika garaian gertatua kontatu zigun: “Esan nion “Orixe”ri gauza bera; orduan ez zen *h-rik*, baina bai *s* eta *z* arteko istiluak, eta kejak jasotzen ari ginenez, esan nion: zeuk datozen bezala hartu behar dituzu lanak, gu ez gara inor alderdikideen artean batekoak edo bestekoak bereizteko”...

Eta halaxe amaitu ziren orduko istiluak.

Neuk hala uste; baina askok, urteak pasata ere, ez didate nire jokabide hura inoiz parkatu.

2. Bigarren auzia, *Deia*-koa izan zen: Oraingoan ere Juanito Ajuriagerra dela eta izan nintzen deitua, euskararen taldeko buru izateko. *H-ren* arazoa onartuaz, noski. Honez gainera, kosta zitzaidan taldea neuk nahi bezala osatzen, eta “infernuko etsai” asko sartu omen nuen; hala aurpegiratu zidaten. Haietako batzu hor daude oraindik eta ez dut uste barru-borroka handirik sortu dietenik.



3. Eta hirugarren aldiz, *Eusko Kontseilu Orokorra* sortu zen une berean, Boletin Ofizialak elebiduna izan behar zuela erabaki zen bezain laster izan nuen Karlos Santamaria jaunaren deia. Neuk ez nuen lan horretan sartu nahi, beste batean hasia nintzelako, baina erreguz eskatu



zidan, Juan Ajuriagerrak onartuko zuen bakarria neu izango nintzela, eta, bestela, sozialisten botuekin erabaki beharko zela, lotsagarri, auzia. Onartu nuen hortaz arduratzea, beraz, eta Xalbador Garmendia laguna izan zen neuk aukeratua lan hori egiteko.

Honek izan zituen, nerekin batera, arazo batzu beste jokabide baten aurrean; baina hau beste istorio bat da.

Ajuriagerra eta Garaikoetxeari zor dio euskara ofizialak bere itzala.

Orain, egunkari euskaldun bat behar dugu. Lizardik eta Aitzolek egunkari honen beharra aspaldi salatu zuten; orain gutxi Mikel Atxagak errepikatu du eskaera. Dudarik gabe, izango du laster euskarak merezi duen egunkaria.

Gai da gaur euskara, Errepublika garaian ez bezala, amets hau egia bizia bihurtzeko.



## EUSKAL KAZETARITZA IDATZIA, EHUN URTETAN LORATU EZ DEN LANBIDEA

*Baiona, 1987-III-29*

*Luis A. Aranberri*

Jaun-andreok, agur.

Ahalik eta laburren jardutea eskatu zait, eta asmo horretan arituko natzaizue, labur bezain zehatz.

Nire burua euskal kazetaritzat —eta ez bestetzat— dudan aldetik, niretzat benetan ohore pozgarria da gaur, hemen, Baionan, lehen euskal astekariaren mendeurren honetan hitzegin ahal izatea eta, bidenabar, euskal kazetaritza idatziak izan duen maisurik nagusienetakoa guztion gogotara ekartzea: *Eskualduna* kazetaz eta Jean Hiriart Urruti kazetariaz mintzo naiz, noski.

Tristuraz aitortu behar dut, hala ere, ehun urte alferrik joan ez diren arren, euskal kazetaritzak ez duela, oraindik, garai hartako lehen urrats baliotsu haietatik itxaro zitekeenik lortu eta, are gutxiago, segurutik, Hiriart-Urruti zenak etorkizunari begira ames zezakeenik. Izan ere, euskal kazetaritza idatzia baita, oraino, ehun urtetan loratu ez den lanbidea.

\* \* \*

Ehun urteotan euskal kazetaritza idatziak bide luzea egin du, definizio-urraketan lehenik, egituratze-nahian gero, merkatu-bila hurrenik eta, ororen gainera, lanbide-aldarrikapenetan azkenengo. Eta bildur naiz ez ote den, beti ere, urri eta berantegi ibili.

Edozein lanbide-motak bere burua normalduko badu, bere giza-funtzioa aurkitu ezezik, gizar-tearengandikako onarpena lortu beharko du. Eta onarpen hori, gaur eta hemen, bizi dugun eta, dirudienez, oraindik ere luzaroan bizi behar izango dugun ekonomi-sistema honetan, dena delako lanbidearen baliagarritasun edota bidegarritasunaren garrantzia, gizarte honetako sektore publikoak nahiz pribatuak sor ditzakeen lanpostuen kopuru eta mailaren arabera da. Egoera erabat normala izango bada, bestalde, lanbide horrek bizi izango dituen lan-harremanak gizar-tean ohizko diren formula homologagarriak bereganatu beharko ditu,

onerako nahiz txarrerako. Hala ere, honelako ezer gutxi erdietsi du, oraino, euskal kazetaritza idatziak.

Ehun urte bai zahar den euskal kazetaritza idatziari ia larogeita hamar joan zitzaizkion literatura eta eritzi-alorreko idazlenetatik bere burua bereizten eta itzultzaileen morrontzatik aldentzen.

Jean Hiriart-Urruti 1915ean hil zenean Gregorio Mujika kronikari giputzak adierazi zuen: “Bera izan da egundaino euskarak izan duen kazetari bakarra”. Izan ere, XIX. mendeburuan Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan sortu ziren kultur-mugimenduen aldizkarietan nekez soma daiteke egiazko kazetaritza egin nahia eta, zer esanik ez, inongo profesionaltze-guraririk. Beste honenbeste esan dezakegu XX. mendearen lehen hiru hamarkadetan kaleratu ziren hogeitaka aldizkarietaz eta ildo beretik jarraitu zuten Espainiako gerraren zein munduko bigarrenaren ondotik han-hemenka azaldu ziren beste hogeita hamar mantxeta berriez.

\* \* \*

Bi belaunaldi iraun zuen garai luze horretan, salbuespen bi aipa daitezke, oro har: Sabino Aranaren abertzaletasunak zuzperrarazi zuen kazetaritza-giroa eta 1936an Eusko Jaurilaritzaren eraginez sortu zen *Eguna* egunkaria. Baina, inori inolako meriturik ukatu gabe, jakina, lehenengo gehiago zen eztabaida politiko eta ideologikoa kazetaritza formala baino eta bigarrena, berriz, gerra garaiko fruitu eta lekuko, “gerrako ekonomia” alegia. Batean nahiz bestean, lanbide-zentzua ez da inondik ere kirikatzen.

Euskal aldizkaritzaren aldaketaren lehen errainuak 1970eko hamarkadarekin batera bizkortu ziren eta, lanbide-arloaren ikuspegitik begiratu gero, 1977an gertatu zen *Deia* eta *Egin* egunkariaren sorreraz bat. Izan ere, zenbait koiuntura eta lege-arazogatik 1976a “Euskal Kazetaritzaren Urtea” izendatu bazuen ere kazetaritzatik bizi ez zen hainbatek, euskal kazetariaren lanbide profesionala, segurtasun soziala, hilaren azkenengo soldata eta, bataz beste, langile-statusa, ez ziren 1977 urterarte etorri.

Gogotan dut, 1975 urtearen inguruan Udako Euskal Unibertsitatetik deitu nindutela, kazetaritza-mundura egokitzeke euskarak omen zituen hizkuntza, estilo eta molde aldetikako eskasiak zertan ote ziren azal nitzan. Nire ustez, euskal kazetaritzak zituen arazo bakarrak estruktura, merkatu, enpresa eta ekonomia arlokoak besterik ez zirela erantzun nien eta ez zuten nitaz gehiago jakiterik nahi izan. Ez dut inoiz jakin zergatik, gaia ez zelako behar bezainbat interesgarria ala ez zelako hainbatek espero bezain literarioa. Dena den, urte bi geroago etorri ziren nolabaiteko estruktura, enpresa eta ekonomia berriak eta, egia esan, ez ziren problema guztiak konpondu.

Hala ere, euskal kazetaritza idatziaren lanbide-arloan sekula historian egin den aposturik haundiena *Deia* egunkariak egin zuen, orain dela hamar urte, 1977ko ekainean hamaika kazetaritako erredakzioa bere baitan kontratatu zuenean. Hamaika haietatik bost Informazio Zientzietan lizentziatuak ziren. Oso proportzio handia garai haietarako.

Esperientzia hark gainbehera egin zuen urte biren buruan, eta porrot haren arrazoiak beste txostenen baterako gelditzen den gai interesgarria bada ere, ezin uka inoiz egin den egitasmorik aberatsena izan zenik. Aipagarri ere, urte berean *Egin* egunkariak burutu zuen projektua; baina kazetari-lanbideari zegokiokeen aldetik, *Eginen* xedea gehiago zen emana euskararen idatzizko agerpen eta testu-kopurutara, egiazko informazioa bildu eta lantzerata baino, gehiago itzulpen-lanetara, egiazko kazetaritza jator eta peto-petora baino.

\* \* \*

Gernikako Estatutua, Eusko Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza indarrean jartzearen ondorioz, 1982an sortu zen Euskal Irrati Telebistak sekulako iraultza erakarri zuen euskal komunikabideen mundura. Zentzu honetan, sektore publikoak zein beronek eragindako ekimen pribatuak mila lanpostu inguru sorrerazi ditu azken lau urteotan, Euskal Herriko Komunitate Autonomoan ezezik, baita Nafarroan eta, neurri txikiagoz, Iparralde honetan ere.



Geroztik, euskal komunikabideen sektorea komunikazio industria bilakatu da eta duela bost urte arlo honetan guttiz defizitarioa zena, zerbitzu, ondasun eta produktu esportatzaile izatera heldu da Euskal Herrian.

Prozedura emankor honetan, euskal kazetaritza idatziak ez du, aldiz, aurrerapen nabarmenik egin. Gaurregun, Euskal Herrian, bideo-operatore, teknikari edota bikoiztaileak, kazetariak baino gehiago dira. Euskal Irrati Telebistan, egun bakar batean, kazetaritza elektronikoan ari direnen kopurua, azken ehun urteotan kazetaritza idatzian aritu diren guztiena baino haundiagoa da.

Dena den, euskal kazetaritza idatziak ere bere urraspidetxoak jorratu ditu azken hilabeteotan, astean behingo *Hemen* eta *Eguna*, eta bizpahiru egunkariren euskarazko barne-gehigarriak lekuko. Hala ere, ezin ahanzi, guzti hauean bereziki kontratatutako kazetari guztiak ez direla, *Deiak* bakarrik orain dela hamar urte zituenak baino gehiago.

Bestalde, aurren hasi da lanean, lehen aldikoz historian, euskarazko albiste-agentzia. Hau da, azkenik euskara teletipora ere heldu da, kazetarien eskutik ez bada ere, itzultzaileen lanari esker.

Beraz, oraindik ere, euskal kazetaritza idatzia ehun urtetan erabat loratu ez den lanbidea da. Baina, ez dago, horregatik, etsipen-izkila jo beharrik ehun urtetan loratu ez denak berrehunetan loratzerik izango bait du, seguraski. Euskal Unibertsitateak kostata plazaratutako lehen euskal kazetari-andana berriak horrelakorik ikusteko jaioko izango al dira!

## IRRATI - TELEBISTAREN LEKUKOTASUNA

Baiona, 1987-III-29

Jose M.<sup>a</sup> Iriondo

Adiskideok, egun on.

Urrestillako semea izaki, “sinberguentzako” zubian gora-behera askotan pasatu izan naiz ni. Eta, hala ere, zuen antzeko entzulego baten aurrean, lotsatu ere egiten naiz. Zergatik gero? Ba... ni eguneroko *kurran-tea*, *praktikatzalea* izan naizelako lehenengo irratian eta gero telebistan, 26 urte honetan ere. Nik ez dizuet *irradi-telebistaren lekukotasunaz* analisi sakon eta zehatzik egingo; aipatu urte hauetako esperientzia kontatuko dizuet, pasatu izan ditudan larrimin eta estualdien berri emango. Gero zuetako norbaitek, nik eman ditzakedan datuak erabiliz, azterketa serio-sago bat egin nahi balu, gaitzerdi. Mereziko luke, agian.

*Irrati-telebistaren lekukotasuna* azkenengo 26 urte hueetan oso garrantzitsua izan dela uste dut nik. Lan asko egin da; eta irratia ez dago gaurregun orain 26 urte zegoen maila berdinean. Modan jarri da Euskal Herrian bertan ere.

Lantegi honetan gu baino esku hobeak saiatu izan balira, fruituak ere hobeak izan zitezkeen. Baina, ekina egina da, eta egina urre gorria, esaera zaharrak dioen bezala.

Gerra aurretik zerbait eta gerraondoan gero, oso lotsati eta beldurrez-edo aritu zen irratia Euskal Herrian. Eta 60-61. urte inguru hartan eman zitzaion egiazko bultzada. Harrigarri delarik ere, kazetaritza idatziak askoz ere garrantzia gehiago izan zuen Euskal Herrian urte haietan. Ez dago oraintsu ikusi dugun erakusketari begiratu besterik. Prentsa idatziak, ehun urte; eta prentsa hitzeginak, 25-26, ozta-ozta. Eta, hala ere, edonork daki jakin, Euskal Herrian *entzun* gehiago egiten dela *irrakurri* baino. Errazagoa bait da. Gertakari honen esplikazio bakarra, edo... bi esplikazio: Kazetaritza idatzia praktikatzeko, hemen bertan sortzen ziren periodikuak (egunkari, astekari, hilabetekari...) eta idatzi egiten zen. Alderantziz, *irratia* atzeritarren eskutik zetorren. Madriletik. Eta ez zuten onartzen *euskarazko* kolaboraziorik. Ez zuten emititu nahi euskaraz, ezertxo ere.

Bigarren arrazoia, uhinak lantzeko zeudela artean. Azkenengo 25 urte hueetan teknikak egin duen aurrerakoa, ikusgarria da. Eta nik pentsatzen dut orain 40 urteko aparailuak ez zirela izango hori eta horrenbestez maneiatzeko trasteak. *Atzerikeria* eta *teknika* ziren, behar bada, Euskal Herrian irratia gehiago ez lantzearen arrazoiak.

Lehenengo irratsaioak, baserritarrentzako edo baserri-giroz egin ziren *euskararen gordeleku baserriak zirela-eta*, seguraski, euskara kaletartzea beharrezkoa zela jakinik ere. Irratian, hala ere, ez zen kazetaritza egin, irratigintza berezi bat baizik: gure erako magazinegintza, zehatz esateko.

60. urtean Segura, Arrate, Tolosa, Arrasateko Eskola Politeknikoan irakasle eta ikasleen artean muntatu zuten irratia bat, eta... Baztanaldean beste bat edo bi sortu zirenean (irratia parrokialak, Arrasatekoa izan ezik) halakoxe abiada baten susmua hartu genuen; eta 61. urtean Loiolako Herri Irratia sortu zen, beste askok hartu zuten bideak urratzeko irrikimin osoz. Haiek egin zuten bidea ezagutzen genuen; eta hobetu zitekeelakoan, lanbide berrietara abiatu ginen. Norberak egindakoa goraiatzea oso dotorea ezpada ere, historia bere horretan kontatu behar dela ustez dasaizuet hau dena. Irratiaren euskalduntze-prozesu honetan, lehenengo urratsak, 61an eman ziren, beraz.

Euskal musika, kirolak, asteburutako jai-albisteak, familia batetan egunoroz gerta daitekeenaren antzeskizun zen *andre-gizonak*, larunbat arratsetako *ipuin antzestuak* etab. martxan hasi ziren.

Entzulegoaren aldetiko giroa, ezin hobe zen, alafede. Baina agintariak beldur ziren, eta hatzamar gogorrez desapiatu gintuzten. Ondo gogoan dut oraindik ere behinbatez GERNIKAKO ARBOLA kanta ezaguna eman genuelako zer nolako iskanbila prestatu ziguten. Pekatu larria izan, nonbait, Iparragirre haundiaren garai bateko askatasun eta maitasun-irrintzia irratiz hori eta horrenbestez ematea. Eta handik laster, Azpeitialdeko karlista talde bat Gipuzkoako Gobernari Zibilarengana joan zen irratian sartu omen ginen "inpernuko txikito" denak handik bota gintzaitela eskatuz. Garai hori ezagutu ez duenari zaila egingo zaio horrelako xinplekeriak sinistea.

1963-64. urteinguruan sortu zen *euskal kanta mugimendu* berriaren giroa, zati on batean behintzat, irratia prestatu zuela esan dezakegu. Gure kantariak, entzulegoa bazegoela-eta, kantatzeko gogoia eta aukera izan zituzten garai hartan. Eta horrela hasi zen mugimendua. Ez zaio zorko irratia bakarrik, baina zati on bat baietz esango nuke nik. Eta euskal musika bezalaxe, bertsolaritza ere sartu zen irratian. 1963. urtean antolatu zen lehenengo aldiz, irratiz, *bertsolari gazteen txapelketa* zortzi gazterekin, elkarren lehian. Zuzenean ezin zen, eta "bucle" sistema erabiliz, segundo batzuk beranduago eman ohi genituen. Ez dakit lege



hori deuseztatua denik ere, baina guri bereak eta asto beltzarenak erakutsi zizkigun garai hartan.

Kirolak ematen hasi ginen berehalaxe. Ez ziren egiteko zailak, eta esan ezin ahalako arrakasta zuten jendartearen. Lehenengoz, 1962. urtean, kargajasotze apustu baten berri eman genuen zuzenean Azpeitiko zezen plazatik (Agerre eta Artola zenaren arteko desapioa zen). Eta oraindik ere nire paper zaharren artean izango dut Donostiako entzule batek Urbiatik egin zidan gutuna. Begiak bete malkoz entzun omen zuen emanaldia. Ez zuen uste berak *euskara gai zenik horrelako emanaldi* baterako.

Ondoren, aizkolariak, estropadak, pilota partiduak, eta... txirrindulariak ere eman genituen, zuzen-zuzenean. Futbola ez. Garai hartako gure gidarien iritziz, hizkuntza unibertsalago batetan eman behar zen futbola; euskaraz ez zen posible.

Lehenengo emanaldi haietan baino satisfazio gehiago jendearen alde-tik! Ahoa bete hortz entzuten zituen jendeak zuzeneko emanaldiak, euskaraz egiten zirenean. Liluramendu bat gertatu zen, nolarebait.

Publizitatea ere egin genuen, eta euskaraz egin ere. Eta aldameneko hizkuntza ereductara jo gabe, euskararen ildotatik egiten genuenean, ponpoxo eta dotore ateratzen zitzaigun. Ez da harrigarri gaurregun publizitatea euskeraz entzutea eta ikustea. Eta duintasunez egiten da gainera. Arazo hori, gaingituxea da, beraz. Aldameneko ereduari lotzen hasiz gero, orduan bai, orduan gertatzen dira gertatzekoak. A zer nolako euskaralpenak!

Oraingo anuntziatzaileek baino zaletasun gehiago zuten ordukoek publizitatea euskaraz egin zedin. Eta hau ere salatzekoa da, nire iritziz.

Baina ez genituen gusto guztiak horretarako ere. 1964. urtean, Fraga Iribarne haundiak *euskarazko publizitatea erabat debekatu* zuen. Euskal Herriko beste komunikabideetan ez zuten euskaraz egin nahi. Eta horrela izanez gero, "konpetentzia desleiala zen" gurea. Ez geneukan euskaraz anuntziatzeko baimenik. Nahiko pasadizu xelebrea, ez?

Eta *euskarazko informazioa* noiz? galdetuko duzue. Izan ere, edonork pentsa dezake ez geneukala euskaraz informatzeko gogorik, asmorik, grinarik. Beste alor gehienak jorratu arren, ez genuela euskarazko informazioaren kezkarik. Izan ere, eguneroko informazioa baztertzea ez da batere normala.

Historia, zera da, ordea: Informaziorako eskusiba osoa, Radio Nacional de Españak zuen. Horrexegatik, nahitaez, eguerdiko 14.30etan eta gaueko 22etan Radio Nacionalarekin bat egitera beharturik zeuden irrati guztiak, nahi zirenak eta ez zirenak handik entzun genitzan. Konexio-

orduak, begirune osoz zaindu eta errespetatu behar ziren. Behin baino gehiagotan zigorrak izan genituen, gure *zabarkeria* zela-eta. Informaziorik egitekotan ere “temas intemporales” bakarrik aipa genitzakeen. Gainerakoa, berek ematen ziguten, galbahetik ondo pasaturik, enpatxa ez gintezen.

Francoren heriotzearen ondoren, esperantza berriak loratu ziren. Eta irratian zegoen informazio-egarria lehertzen hasi zen, behar adinako abiaduraz ez bazen ere. 1977. urteko HOGETA LAU ORDUAK EUSKARAZ eta geroago 80. hamarkadan hasi eta berehala SEI ORDU EUSKARAZko saioak hasi zirenean, lehenengo intentoak egin ziren eguneroko informazioa emateko. Garai horretan ireki ziren irratiairen ateak, informaziorako.

Baina, arazo asko eta larriak zeuden orduan ere: ez zegoen euskaraz informatzeko ohitura eta trebezia haundirik gure artean. Horretarako prestatu eta gaiturik zeuden kazetariak falta ziren, edo... gutxi batzuk besterik ez zegoen. Eta irratiairen antzeko komunikabide batetan *emai-learen* arazo larriari *hartailearena* lotzen zaio. Bata bezain larria bestea, noski. Gure kazetariak ohiturarik ez informazioa euskaraz emateko, eta... gure entzulegoak gutxiago eguneroko informazioa barra-barra jasotzeko. Harrapa zak hori!

Eta oraindik ere antzematen da ahulezia hori. Egin ez baduzue, egizue froga txiki bat. Nire aitak, 88 urteko Urrestillako semea izan eta... “zuen euskera ez zegok entenditzerik!” esan izan dit behin eta berriz.

Nola *eman* eta nola *hartu* sindikal arazoak, politikoak, ekonomikoak, nazioarteko politikari dagozkionak, euskaraz? Begiratu batera, arazo sinplea da, bai. Baina herri normalizatu batetan. Hemen, oraindik ere politikoki eta hizkuntzaz ere normaltzeko gauden herri honetan, horrelaxe-koak gara. Zer arraio nahi duzue?

Urte askotako eraso gorriaren ondorioa da guzti hau, eta denpora beharko dugu erren hori konpontzeko.

Komunikabide batetan ez du balio mezua emateak, baldin-eta hartzaileak aise jasotzen ez badu. Komunikazioa, alderdi bien arteko loturan sortzen da.

1982. udazkenez EUSKADI IRRATIA sortu zen; eta eguneroko informazioa, gainerako programazio osoaren antzera, euskaraz ematen hasi zen. Eta 1983. urteko URTE BERRI egunez, edo 82ko URTE ZAHAR gauzez EUSKAL TELEBISTA ere hasi zen, abiatu zen, informazioa euskaraz emanez, telefilmek, telenobelak, dokumentalak euskaraz emanez.

Kritikarik ez dugu falta, eta kritika oso ona da, baldin-eta kritikatu nahi dena hobetzeko gogoz egiten denean. Bestetan, hitzegin behar ez lukeen askok hitzegiten duenean, ez du balio.

Gure hizlarien ahulezia kritikatu izan da, hizkeraren erabilera aldre-besa eta traketsa, berezko euskararik eza, etab. Eta ahulezia horiek oso konponerrezak direla esan da inoiz. Baina, ez du balio. Gu, nahitaez, Herri honen ixpilu gara, gure hizlariak eta kazetariak diren bezalaxe.

Irratiak, tradizio apur bat bazegoen-eta, bere bidea egin du, ondo edo gaizki. Telebistari mila oztopo sortu zaio: gure Herrian ez zegoen tradizio telebisiborik: ez emateko eta ez hartzeko. Beraz, 1975. urtetik Telenorten egindako ahalegin sotil haien ondotik, hutsetik hasi behar izan dugu, bai eguneroko informazioa egiten, bai filmeak bikoiztu, tele-nobelak dramatizatu eta dokumentalak euskaratzeko euskara asmatzen ere.

Zertan dago arazorik larriena?

Lehenengo eta behin, lehen ere esan dudana: tradiziorik eza, espreski horretarako jenderik prestatu eza, eredu berri bat hutsetik egiten hasi beharra...

Eredu bat behar eta... aldemenekora jo behar izan dugu. Eta horrek sortzen ditu gure makurrik txarrenak. Agentziek erdaraz ematen dute informazioa, informazioa erdaraz sortzen da gure Herrian. Eta eguneroko informazioa biltzen ari den kazetariak, presa eta larri, informazio hori *euskaratu* egin behar izaten du. Euskara bera arrotzago zaio askotan kazetariari, informazioaren edukina baino: hitzak, klixeak, argota, ez da hori eta horrenbestez euskaratzen. Eredua ahaztu behar da, eta *mamia euskaraz* bildu. Beste honenbeste esan dezaket telefilmeak, dokumentalak edo tenenobelak euskaratu eta bikoizteko ere.

*Euskara* ez da arazoa, *euskaraz hori txukun egiten ez dakienarena* baizik. Guk ez dugu izan gure profesionalak euskaraz normalki hezitzeiko aukerarik, unibertsitatean. Gure profesionalak, eguneroko jardunaren jardunez hezi eta trebatu dira, edo... gara.

Esperientzia baten jabe egiteko, eguneroko zereginetan sartu behar izan du buru eta belarri. Eta urteen poderioz, azkenean ere, hezten eta trebatzen gara.

Informazioan ari denari sortzen zaizkion larriminak ez dira batere zailak, begiratu batera:

- Mañana comienza el juicio del siglo (koltza olioaren epaiketa).
- El Gobierno central se enfrenta al sindicato UGT.
- El Athletic fuera de peligro para el play-off de descenso.
- Espectacular parada de Arconada.

Nork esan du esaldi hauek euskaratzea zaila denik? Baina... eguneroko larrian ari denak, aldameneko hizkuntzaren zama du bizkarrean, eta

zapla! euskaratzen ditu hitzak, forma eta zentzua erdaraz gelditzen bazaio ere. Presaka dabilelako, askotan. Edo euskararen baliabideak behar bezala ezagutzen ez dituelako, frangotan.

Lehenago aipatu dudanez, filmeak, telenobelak, dokumentalak etab. bikoiztean ere, arazo berdintsuak daude. Itzulpenetik hasi eta azkenengo dramatizazioraino mila oztopo: pertsonaiari dagokion ahotsa aukeratu, irrian irriz eta malkoan malkoz bikoiztu, gaiak eskatzen duen tratamendua eman... Euskal Herrian ez da izan *bikoizketa eskolarik*. Lehenengo pausoak, 1982ko urtean eman ziren, lehenengo Donostian eta gero Bilbon. Ikastaro laburrak ziren eta irakasle, geu. Kontuak hortik atera.

Gainerako guztia, arian-arian egin du bakoitzak, eguneroko praktikan. Eta ez da batere harrigarria, egoera honetan, inoiz salatu izan diren hankasartzeak egitea. "Ama, gure ahuntza haurdun dago!" itzuli eta bikoiztu zuten noizbait. Eta beste behin, "asteburu honetan Erromatik hurbil elkar ikusiko dugu, apika" azpigitulatu behar eta "este fin de semana nos veremos en Apica, ciudad cercana a Roma" azpigitulatu zuen norbaitek, lasai arraio.

Bikoizketari nagokiolarik, hala ere, orain lau urtekoa eta oraingoak *ez dutela elkarren antzik* azpillerrotu behar dut. Gure jendeak, gero eta hobeki bikoizten du, ofizioa ikasten ari da. Eta hori, oso esperantzagarria da. Fruitu hoberik izan zitekeen, bai; baina hori ere hor dago. Garena gara, eta kitto!



Beste alorrak.

Antzerkia eta dramatikoak ere bidean daude. Oraintsu burutu dira Chejov-en hiru ipuinen grabazio lanak, eta orain postprodukzioa gelditzen zaigu. Baina, gure historian lehenengo aldiz egingo da tamaina honetako grabazio bat. Guztira, hiru ipuin, eta 4 ordu inguru, euskara-gazteleraz.

Egun batez, aurreko Irailez Benidorm-en egin ziren jardunaldi batzu zirela-eta, *Telebistaren arazo larrietako bat gidoigilerik eza zela* esan nuen nik. Eta ez nituen jaso edozein moduzko kritikak. Birau haundiegia zen, nonbait, Herri honetako idazle ikut ezinen kontra.

Inork ez zuen esan, ordea, zein testuingurutan esan nuen nik hura. Besteak beste, *Telebistaren arazo multzo haundi bat aipatu nuen; eta TV3, TVG eta TVEkoek bezalaxe, guk ere gidoigileen arazoa bagenuela* esan nuen, eta diot orain ere.

Gu baino Telebisio haundiagoek *gidoigile arazoak* dituztela esaten badute, nik ez dut lotsarik *guk ere baditugula* esateko.

Aurreko Ekainez Múnich-en egin zen CIRCUM bilerako gaietako bat, aztertu beharreko gai bat, hori eta bera izan zen. Europako Telebista guztien larria zela nabarmendu zen han ere. Eta guk ez?

Gidoia idaztea da bata eta gidoi hori pantailara eraman ahal izatea, bestea: teknika, dirua, gidoiaren irudikatze ahalmena... Baldintza askotxo daude ingurumari horretan, literatura soilaz gainera.

Egia esateko, azkenaldi honetan, gero eta eskainta gehiago jasotzen da Euskal Telebistan. Eta gure salbamena horixe izango da, zinez. Eginez, ekinez, aspertu gabe arituz, zerbait egingo dugu, lehen ere mila aldiz egin izan dugun bezalaxe.

Euskal Telebistaren produkzioa txikia dela esaten da. Eta, egia da. Guk ez dugu sekulako kartera, salmentak egitera goazenean; baina badi-tugu gure aletxoak, eta orainartekoan duintasunez egiten dira egin daitezkeen eskainta guztiak. Nazioarteko merkatuan sartzen ari gara, emeki-emeki.

Labur esateko, hauxe da *irradi-telebistaren lekukotasunari* buruz esan dezakedana. Eta komunikabideok sortzen ari garen euskara moldea zain-tzea eta *hobetzea, zuoi dagokizue*, Euskaltzaindiari esan nahi bait da.